

**Eskola
lagun.
Elkarrekin
bizi eta
Ikasi.**

**elkarbizitzarako
plangintza eta antolakuntza
"GUEREÑU" Ikastetxean**



Elkarbizitzako plangintza eta antolakuntza GUEREÑU Ikastetxean

EKINTZAK ETA DENBORALIZAZIOA

Oinarrizko dokumentua egin: <i>“Elkarbizitzarako plangintza eta antolakuntza “GUEREÑU” Ikastetxean”</i> .	2010-2011 ikasturteko hirugarren hiruhilabetean.
Oinarrizko dokumentua Klaustrokideei, Guraso Elkarteari eta Eskola Kontseiluko partaideei helarazi beraren gainean hausnarketa egiteko.	2011ko iraila-urria.
Oinarrizko dokumentua ikasleei aurkeztu.	2011ko urriko tutoretza saioetan.
Elkarbizitza-behatokia sortu.	2011ko urrian.
2011-2012 ikasturteko planean elkarbizitza proiektua txertatu	2011ko urrian.
Hausnarketan ondoriaztutakoen arabera oinarrizko dokumentua egokitu, Eskola Kontseiluan aurkeztu eta onetsi.	2011-2012 ikasturteko lehenengo hiruhilabetean.



Elkarbizitzako plangintza eta antolakuntza GUEREÑU Ikastetxean

AURKIBIDEA

1. Sarrera
2. Helburu orokorrak
3. Urteko elkarbizitza plana
4. Elkarbizitza Batzordea
5. Ikastetxeko elkarbizitza araudia
 - 5.1. Elkarbizitzako arau orokorrak
 - 5.2. Ikastetxeako ikasleen sarrera eta irteerak
 - 5.3. Ikastetxeako ez irakasleria eta ikasleen arduradunen sarrera eta irteerak
 - 5.4. Puntualtasuna eta ikastetxeako hutsegiteak
 - 5.5. Ikasleen desplazamenduak:
 - 5.5.1. Ikastetxea barruan
 - 5.5.2. Ikastetxeatik kanpo
 - 5.6. Jantokiko araudia.
 - 5.7. Eskolaz kanpoko ekintzen arautegia
 - 5.8. Inguruarekiko harremana
 - 5.9. Eskola lagun.
 - 5.10. Ikasgelarako arauak.
6. Euskal Autonomia Erkidegoko Unibertsitatez besteko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzko Abenduak 2ko 201/2008 dekretua
 - 6.1. Ikasleen eskubide eta betebeharren atalak.
 - 6.2. Funtzionamendurako baliabideak:
 - 6.2.1. Jarrerren errolda
 - 6.2.2. Neurri hezigarriak
 - 6.3. Aparteko prozedura
7. Guraso eta arduradunentzako informazioa



Elkarbizitzako plangintza eta antolakuntza GUEREÑU Ikastetxean

1. SARRERA

“GUEREÑU” ikastetxea hezkuntza zentro bat da non irakatsi eta hezi ez ezik pertsona talde ezberdinak bizikide diren: ikasleria, irakasleria, gurasoak, ekintza desberdinetako begiraleak, beste lankide batzuk,...

Hartara, ikastetxea osatzen dugun pertsonen arteko harremanak zaindu behar ditugu, hauek suspergarriak, adeitsuak eta aldi berean osasuntsuak izan daitezzen. Horretarako **Urteko Elkarbizitza Plana** dugu, **Elkarbizitzako Behatokia** eta dokumentu honetan aipatutako helburu orokorren erdiespenari bideratutako beste baliabide sorta bat.



Dokumentu honetan helburuak zehazten dira, beraien plangintza eta ebaluazioa, eskola-komunitateko kide ezberdinen funtzioa eta eraginak. Nabarmendu behar da eskola-komunitate honetan parte hartzen duten partaide ezberdinen esku-hartzearen garrantzia, zeinen helburua Behatokiaren funtzioa nabarmenduz Elkarbizitza baikor baten lorpen eta osasuntsua den.

Dokumentu honetan helburuak zehazten dira, beraien plangintza eta ebaluazioa, eskola-komunitateko kide ezberdinen funtzioa eta eraginak. Nabarmendu behar da eskola-komunitate honetan parte hartzen duten partaide ezberdinen esku-hartzearen garrantzia, zeinen helburua Behatokiaren funtzioa nabarmenduz Elkarbizitza baikor baten lorpen eta osasuntsua den.

2. HELBURU OROKORRAK

- ◆ Ikastetxean Elkarbizitza hobetzea.
- ◆ Hezkuntza komunitateko partaide guztien artean harmonia eta begirune giro bat sortzea.
- ◆ Erantzunkizunak hartuz, eskolako partaidea gareneko ideia hartzea, bai gurasook, ikasleok zein irakasleok.
- ◆ Gizon eta emakumeen arteko berdintasuna bultzatzea (mutil eta neskak).
- ◆ Gatazken ebazpen baketsua bultzatzea.
- ◆ Berdinen arteko mehatxu eta jazarpenei bat-bateko erantzuna eman.
- ◆ Gatazkek aurrezaindu eta harremanen hobekuntzan hezi.
- ◆ Inguaruarekiko begirunea bultzatzea.

3. URTEKO ELKARBIZITZA PLANA

Ikasturte bakoitzerako eskola komunitateko partaide guztien arteko elkarbizitza hobea lortzeko ariketa bideratuak planifikatu, antolatu eta burutuko dira.

4. ELKARBIZITZAKO BATZORDEA

◆ Elkarbizitzako batzordearen osaketa.

Elkarbizitzako batzordea, kontseilu eskolarreko lau partaideek osatuko dute: bi guraso eta bi irakasle (zuzendaria/ikasketa burua eta ikastetxeako irakasle bat)



◆ Batzordearen eginkizun banaketa.

- batzordeburua: zuzendaria/ ikastetxeako ikasketa buru.
- Idazkaria: guraso bat.
- Batzordekidea: guraso bat eta ikastetxeako irakasle bat.



Elkarbizitzako plangintza eta antolakuntza

GUEREÑU Ikastetxean

◆ Elkarbizitza Batzordearen funtzioak:

- Eskolako elkarbizitza funtzionamendu onarengatik beilatu.
- Ikastetxeko elkarbizitzaren araudia berraztertu eta gaurkotu, hezkuntza komunitate partaide guztien partaidetza bermatuz.
- Arrisku egoeren aurrean prebentzio lanak ikustatu eta ikastetxean dagoen araudiaren betetzea.
- Ikastetxeko ikasleriarengan eman daitezken jarrera desagokiak aztertu, elkarbizitzaren aurkakoak edota elkarbizitza hau eragozten dituztenak hain zuzen ere. Honela, jarrera hauek hobetzeko ekintzak proposatu.

◆ Komisioko bileren maiztasuna:

- Hiruhilabetekoan behin.
- Bere funtzioen aplikazioarekin erlazionatutako momentuetan beharrezkoa bada.

5. IKASTETXEKO ELKARBIZITZAKO ARAUDIA.

5.1. ELKARBIZITZAKO ARAU OROKORRAK

- Funtzionamendu egokiaren oinarria, elkarrekiko errespetua da.
- Adierazpen askatasuna errespetatu behar da.
- Sexu, arraza, erlijio, kanpoko itxura... arrazoiengatik inor ez baztertua.
- Ikastetxean Euskararen erabilera bultzatuko da.
- Ikastetxeko instalazioak zaindu eta garbi mantentzea.
- Ikastetxeko instalazioak diseinatutako eginkizunetarako erabiliko dira (adibidez, pasabideak, eskailerak eta komunak ezin izango dira erabili jolasteko).
- Ikasleren bat Hezkuntza Komunitateko partaide bati zuzentzerakoan, gizabide eta begirunez zuzenduko da: agurtu, doinu normalarekin hitz egin, berbategi zuzena erabili, besteei min eman diezaieketen irainak eta modu txarrak baztertu, eskerrak eman, gauzak begirunez eskatu... ikasle gazteen aurrean eredu bat izanez .
- Era berean arau berberak kontuan izango dira Hezkuntza komunitateko partaide bat ikasleren bati zuzentzerakoan.
- Hezkuntza Komunitateko partaide guztien arteko komunikazioan (irakasleak, gurasoak, irakasle ez diren langileak...) lehen aipatutako kortesia eta begiruneko arauak mantenduko dira.
- Guraso zein irakasleriak elkarriketaren bidez ebatziko du gatazken konponketa eta edozein duda, ardura edo egonezina zuzendaritzakoekin edota irakasleekin kontsultatu.
- Ikastetxea adingabeko ikasleak datozen eremu bat da, beraz, legeak dioenez, ikastetxe eremu guztian debekatuta dago erretzea (eraikuntzan, patioan, frontoian)



- Patioa ikastetxeko eremu bat da. Eskolako orduetan zein ikastetxeak antolatutako eginkizunetan, zuzendutako arauak errespetatuko dira.
- Patioa, eskolako ordutegitik kanpo, begiruneko eta harmoniako eremu bat izan dadin saiatuko da.

5.2. IKASLEEN IKASTETXEAKO SARRERA-IRTEERAK



Ikasleak:

- Bi urteko Ikasleak eta Lehen Hezkuntzakoak patio nagusiko atetik sartuko dira (Palentzia Kaleko aldera). Irteerak, bigarren ate nagusitik egingo dute (Amizkarra kalearen aldera).
- Haur Hezkuntzan, bai sarrerak bai irteerak, dagoen ate bakarretik.
- Pasabideetan modu lasaian egingo dute joan-etorria, inongo ustekaberik sortu gabe (bultzatu, korrika egin, oihukatu, motxilak bota...).
- Pasabideak zein eskailerak joan-etorriak egiteko eremuak dira, hartara, eremu hauek joan-etorri horiek egiteko bakarrik izango dira (gelatik ikastetxeko beste eremu batera joateko).
- Sarreretan geletara abiatuko dira, pasabideetara berriz bueltatu barik.
- Eskolako orduetan gelan geldituko dira. Gelatik irteteko, momentu horretan dagoen irakaslearen baimenarekin izango da.
- Gela aldaketak irakasle batek zuzenduta egingo dituzte.
- Ekintza gelatik kanpo egin behar bada, kontuan hartuko da ikastetxeko joan-etorrien arautegia.
- Eskolako ordutegian ezin izango da ikastetxetik atera. Ikastetxetik atera behar izanez gero, guraso zein arduradunen bat etorri beharko da, baldin eta alde zuzen baimen oharririk ekarri ez badu gaixorik dagoela esanez edo bera bakarrik medikuarengana joateko.
- Patio orduetan, ikasleak patioan bertan gelditu behar dira, ezin da ikastetxeara sartu, beti ere sortzen diren beharrak kontuan izanik.

Gurasoak edota ikasleen arduradunak:

- Sarreretan Lehen Hezkuntzako ikasleei barruko patio nagusiraino lagunduko zaie. Hemendik aurrera beraiek bakarrik sartu beharko dira.
- Lehen Hezkuntzako ikasleen jasoera eraikuntza barruan sartu gabe burutuko da
- Haur Hezkuntzako ikasleei etapa honetako sarrera irteerako ateraino lagunduko zaie. Umeak, behin barruan egonda, gurasoak zein arduradunak, ikastetxetik irteten beharko dira.
- Hiru urteko umeak arduradunekin gelaraino joango dira. Irakasleak adieraziko du noiz izango den momentu egokia Haur Hezkuntzako gainerako ikasleen



Elkarbizitzako plangintza eta antolakuntza

GUEREÑU Ikastetxean

jarraibideak burutzeko.

- Haur Hezkuntzako ikasleen jasoera, ateetan bertan burutuko da, hortaz, irten arte itxaron beharko da.
- Hiru urteko umeek lehenetara dute, horregatik, beraien arduradunak irteerako atetik hurbilago kokatuko dira.
- Ikastetxeko ateak 10 minutu pasa ondoren itxiko dira. Hau dela eta berandu datozen umeak Lehen Hezkuntzako Amizkarra Kaleko atetik sartu beharko dira. eta bertako zaintzako irakaslearekin geratuko dira lehenengo eskola-modulua bukato arte (09.45).
- Gurasoen edota ikasleen arduradunen mezu garrantzitsuak, zuzendaritzaren bidez egin beharko da (telefonoz, pertsonalki...) eta dagokion irakasleari iragarriko zaio.

Irakasleak:

- Irakasleak geletara heltzen direnean, irakasleak bertan egon beharko dira eta egoerak horrela eskatuz gero ikasleei lagundu beharko diete.
- Saio osoan geletan geldituko dira. Beharra sortuz gero, aproposa den erantzun bat eman beharko dute.
- Atsedendietan irakasleak ezin dira bakarrik geratu ikasgeletan. Geratzekotan irakasle batekin izan beharko da.
- Lanetik hutsegitean, ikastetxe berak beste irakasle bat izendatuko du gelan egoteko, irakasle bakarrik gera ez daitezten.

5.3. IKASLEEN ARDURADUN ETA IRAKASLE EZ DEN LANGILEAREN IKASTETXEAKO SARRERA IRTEERAK

- Ikastetxeko ate nagusitik sartuko dira (Amizkarra Kaletik) eta atezaintzara edota zuzendaritzara zuzenduko dira.
- Eskolako ordutegi barruan, ikastetxe barruan atezaintzan dagoen arduradunarekin edo ikastetxeko edonorekin lagunduta joan beharko dira.
- Eskolako ordutegi barruan arduradunak ikasle bat jaso nahi badu, atezaintzako arduradunari edo zuzendaritzako partaide bati esango dio. Hauek dira ikaslea hartu eta sarreraraino eramango dutenak.
- Irakasleekiko hartu-emanak idatziz edo elkarrizketa eskatuz egitea komeni da.



Elkarbizitzako plangintza eta antolakuntza

GUEREÑU Ikastetxean

5.4. PUNTUALTASUNA ETA HUTS-EGITEAK



- Ikastetxeara puntualtasunez joatea, ikasle guztien obligazio zein eskubidea da. Etorrera derrigorrezkoa da.
- Eskolako huts-egiteak idatziz justifikatu beharko dira. Huts-egiteak ikastetxean justifikatzea derrigorrezkoa da.
- Familiak agiri baten bitartez justifikatuko ditu huts-egiteak eta irakasleari entregatu beharko zaio.
- Ikasleen berandu etortzeak ere, justifikatu beharko dira.
- Txirrinak jolas-ordua bukatutzat emango du. Ikasleak entzuterakoan geletara joan beharko dira.

5.5. IKASLEEN JOAN-ETORRIAK.

◆ IKASTETXE BARRUAN:

- Ikasleak gelatik modu ordenatuan atera beharko dira.
- Pasabideetan zein eskaileretan aipatutako arauak mantendu eta errespetatuko dira.

◆ IKASTETXETIK KANPO:

- Irtenaldietan jarduerako arduradunaren laguntzaz egingo da, ekintza ze motatakoa den eta ze baldintzak dituen kontuan izanda.
- Irtenaldietan, irakasleak zehaztutako arauak jarraitu beharko dira.
- Jarduera horretara, ikasleren bat berandu etorri gero eta bere taldea ez baldin badago ikastetxean, ikasle hori ikastetxean geldituko da taldekideak etorri arte. Irtenaldirako autobusa behar izanez gero, partaideen jarrera egokia izan beharko da. Zuzendaritza taldeak egokitzen emanez gero, beste motatako erabaki bat hartu ahal izango da.
- Eskolaz kanpoko irtenaldi hauetan, ikasleen jarrerak kontuan hartuko dira. Jarreraren erregistroan egoera arriskutsua sor daitekeela ageri bada, jarduera horretan ikasle horren partaidetza erabakiko da.



5.6. JANTOKIKO ARAUDIA.

◆ SARRERAN

- Jantokian sartu baino lehenago ume guztiek txandetan eskuak garbituko dituzte komunetan begiraleen kontrolpean.
- Haur Hezkuntzako uneak bere begiraleek zainduta (bat taldearen aurrean eta beste atzean)



Elkarbizitzako plangintza eta antolakuntza

GUEREÑU Ikastetxean

etorriko dira haur hezkuntzako eraikuntzatik jantokiraino, sokaren laguntzarekin inor bidean ez galtzeko. Lehen Hezkuntzako ikasleak jantokiko arduradunak ala begiraleek aginduta sartuko dira.

- Sarrera korrika egin gabe eta oihukatu gabe egingo da.
- Ikasle bakoitza dagokion lekuan edo begiraleek agindutakoan eseriko dira.

◆ BAZKARIAN

- Jakiekiko nazka edo goragale keinuak ez dira onartuko.
- Bere neurrian denetik jan behar da.
- Jantokian oihu ala zarata egitea kaltegarria da bazkalkideentzako.
- Mahai-tresnak ez dira jolasteko edo zarata egiteko erabiliko.



- Elkarri janari puzkak botatzea galerazita dago.
- Ezin da jantokitik janaria atera, bertan bukatu behar da.
- Bazkaltzen duten bitartean, begiraleen baimenik ez badute, umeak ez dira bere lekutik altxatuko.
- Ez bada begirallen baimenarekin, bazkaria bukatu arte ez dira komunak erabiliko.

◆ BAZKALOSTEAN

- Bazkaria bukatuta, ikasle guztiok hortzak garbituko dituzte txandetan begiraleen kontrolpean.

◆ BESTELAKOAK

- Jantokiaren izaera hezigarria kontuan harturik, jantokiko eguneroko eginbehar txikietan ikasleen partaidetza bultzatuko da: mahaiak prestatu eta jaso; ura zerbitu; erratza pasatu; ...
- Jantokiaren ordutegi barruan burutzen diren ekintza osagarri guztietan jantokiko arduradunak edo/eta begiraleek ezarritako baldintzetan burutuko dira.
- Ekintza horiek burutzen diren bitartean, dagokien tokietan mantenduko dira ikasleak, ikastetxeko beste leku batzuetara joan edo sartu gabe baimenik gabe.
- Oso falta larritzat hartuko da ikasleak jantokiko ordutegian ikastetxetik ateratzea.

5.7. ESKOLAZ KANPOKO EKINTZEN ARAUDIA.



- Parte-hartzea jarraitua izan behar da.
- Ikasleen gurasoek justifikatu beharko dituzte huts-egiteak.
- Jardueretan, ikasleek jarrera egokia mantenduko dute.

Hau ez bada ematen:

- Egoera desegokien berri eman familiei edo arduradunei.
- Jarduera egiten jarraitzeko aukera kendu.



5.8. INGURUAREKIKO HARREMANA.

- Guztiok gaude derrigortuak ikastetxeko instalazioak, patio eremua (kulunkak...) zein materialak egoera onean egon daitezen. Gelako zaintza (mahaiak, aulkiak, leihoak...) zein bere garbitasuna ikasleen ardurapean gelditzen da .
- Matxura bat dagoenean, irakasleari jakinarazi beharko zaio zuzendaritzako partaideak jakinaren gainean egoteko.
- Matxurak arduragabekeriagatik izanez gero, urratzaileek euren kargu hartu beharko dute, egoera bakoitzean nola konpondu kontuan hartuz.
- Gelako materiala zaindu zein egoera berdinean itzuli beharreko ondasun bat da, erabileraren narriadura ezik (liburuak...).
- Guztion ardura da gela baldintza egokietan mantentzea. Hartara, ikaskideen, ikastetxeko zein gelako materialarekin errespetuz jokatu beharko dute. Ezin izango da baimenik gabe besteen materialik hartu. Hartuz gero, baldintza berean bueltatu beharko da.
- Besteen espazioa eta jolasa errespetatu beharko da.
- Gelako ordena bakoitzaren eta gainerakoen aprobetxamendurako ezinbesteko baldintza da. Horregatik, ikasle bakoitzak lanarekiko zein guztion arretarekiko barruko giro egokia sortu beharko du.
- Gelako dinamika ahalik eta gutxien apurtzen saiatuko da. Mezuak zein edozein berri emateko gelako dinamika eteten ez diren beste momentu batzuk aukeratuko dira.
- Ikastetxe barruan, baloiak eta beste motatako materialak ondo helduta eraman beharko dira (bata besteari pasatu barik, bota barik....)
- Patinak, patineteak eta txirrindak ezin izango dira erabili ikastetxean. Horregatik komenigarria da ez ekartzea.
- Ikastetxean aurkitzen diren galdutako objektu guztiak atezaintzan utzi beharko dira.
- Etxetik ekartzen diren jostailu zein materialak galdu edo apurtuz gero ikastetxeak ez du erantzukizunik izango, duen balio ekonomikoa izanda ere. Horregatik komenigarria da jostailurik ez ekartzea.
- Ikastetxeko ordutegi barruan debekatuta dago mugikorra erabiltzea.
- Xede hezigarriengatik izan ezik, ikastetxean animaliak sartzea debekatuta dago.



5.9. ESKOLA LAGUN.



Zertan inplikatu ikasleok? Zertan eman dezakete laguntza? Hona hemen proposamen batzuk urteko planetan sartzen joateko.

- ◆ Ikasgelako asanbladak, ikasleen ekarpenak, nahiak eta beharrak bideratzeko. Horretarako tutoretza saiok erabiliko dira bereziki.
- ◆ Ikasgelako delegadua izendatu Lehen Hezkuntzan.
- ◆ Ikasle nagusiok jolasak antolatu Haur

Hezkuntzan patio denboretan.

- ◆ “Irakurlea lagun” Ikasle nagusiok (4-5-6 mailetakook) 1. eta 2. mailako ikasleei. Astean 15 minutu irakurtzen lagundu.
- ◆ Espazioen arduradunak errekreio garaian: komunetan, portxean, patioan, ...
- ◆ Patrulla berdea: Betebehar deberdinak Agenda-21 proiektuari lotuta.
- ◆ Jantokian: Mahaiak jartzen eta jasotzen laguntzen, zerbitzen, txikiak jantokitik beste eraikuntzara pasatzen lagundu,
- ◆ Patioko kirol banaketaren kontrola.
- ◆ Erreziklaian lagundu.
- ◆

Eta gurasook?

- ◆ Espazioen zaintza eskolas kanpoko ekintzak egiten direnean (5etatik 6:30ak arte).
- ◆ Tertulia dialogikoak.
- ◆ Jaialdi berezietan parte hartu
- ◆ Ekarpenak arlo kurrikularretan, haien esperientziak edo jakingaiak, egindako bidaiak ala bitxikeriak, ..
- ◆ Patioen margoekin jarraitzea.
- ◆ Ekintza osagarri batzuetan laguntzaile izan.
- ◆

Nola :

- ◆ Ikasle guztiek parte hartuko lukete txandaka ekintza desberdinetan urteko plan bakoitzaren arabera. arabera.
- ◆ Peto identifikagarria eramango dute, “Eskola lagun “ Testua idatzirik dutenak.
- ◆ Ez dira oztapatuko eskola orduak. Bereziki patio garaio



5.10. IKASGELARAKO ARAUDIA

Hemen aurkezten duguna adibide bat besterik ez da. Ikasmaila bakoitzean araudi hau ikasleekin negoziatu behar da tutoretza saioetan eta adinaren arabera indar gehiago egin beharko da puntu batzuetan edo besteetan. Gainera zeharkako lana izan beharko da, arlo guztietan eta eskola komunitateko guztiok bultzaturik.

IKASGELA

- ◆ Euskaraz egingo dugu.
- ◆ Ikasgela txukun eta garbi mantenduko dugu.
- ◆ Materiala zainduko dugu.
- ◆ Gelatik irten baino lehen gela txukun utziko dugu.
- ◆ Aulkiak 12:00etan mahai azpian eta 17:00etan mahai gainean jarriko ditugu.
- ◆ Ikasgelan ez dugu baloiarekin jolastuko.
- ◆ Ikasgelan ezin da korrika ibili.

LANEAN

- ◆ Gelan sartu bezain laster, behar dugun materiala prestatzen hasiko gara.
- ◆ Aulkian ondo eserita egon.
- ◆ Ez gara gure aulkitik altxatuko.
- ◆ Lanean ari garenean isilik egongo gara.
- ◆ Gelan ematen diren azalpenak arretaz entzungo ditugu.



BESTEETIKO JARRERAK

- ◆ Elkar errespetatuko dugu.
- ◆ Gauzak mesedez eskatu eta ondoren eskerrak eman.
- ◆ Arazoak hitz eginez konpondu behar dira eta ez elkar joka.
- ◆ Hitz egiterakoan hiztegia zaindu.
- ◆ Bakoitzaren gauzak errespetatu eta baimenik gabe ez hartu.
- ◆ Gelakideak lagundu, eta euren laguntza onartu.
- ◆ Gelakideak diren bezala onartu behar ditugu eta ez dugu euren hutsegiteez barrerik egingo.
- ◆ Gelako giroa ona izan dadin lagunduko dugu.
- ◆ Gustuko ez ditugun adiskideak ez ditugu goitizenez deituko ala irainduko.
- ◆ Gelako arauak eta guztion artean adostutako erabakiak onartu eta errespetatuko ditugu.



HITZ EGITERAKOAN

- ◆ Gainerakoek hitz egiten dutenean errespetuz entzun.
- ◆ Hitz egiteko eskua altxa eta txanda errespetatuko dugu.
- ◆ Hitz egiterakoan doinu egokia erabili.

OHITURA PERTSONALAK

- ◆ Behar den material guztia (koadernoak, liburuak, estutxea...) txukun eta prest eduki.
- ◆ Etxerako lanak egin.
- ◆ Agenda eguneratuta izan eta kontsultatu.
- ◆ Idatzi modu garbi eta ulergarrian, irakasleak agintzen duen arkatx edo axotarekin.
- ◆ Fitxak eta koadernoak txukun eduki.
- ◆ Lanak agindutako epean aurkeztu.
- ◆ Garbitasuna zaindu (orrazkera , janzkera, azkazalak...).

6. 201/2008 DEKRETUAK, ABENDUAREN 2KOAK, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO UNIBERTSITATEAZ KANPOKO IKASTETXEETAKO IKASLEEN ESKUBIDEEI ETA BETEBEHAREEI BURUZKOAK.

Dokumentu honen 1go eranskinan abenduak 2ren 201/2008 dekretua aurkitzen da, Euskal Herriko autonomi erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta eginbeharrei buruzkoa (B.O.P.V. – 2008ko abenduak 16, asteartea).

6.1. Ikasleen eskubideei eta betebehareei buruzko Dekretuen atalak.

AURREKO ATALA: XEDAPEN ORROKORRAK

LEHEN ATALA: IKASLEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

BIGARREN ATALA: JOKABIDE DESEGOKIAK, BIZIKIDETZAREN AURKAKOAK ETA HURA LARRIKI KALTETZEN DUTENAK, ETA JOKABIDE HORIEN ZUZENTZAKETA.

HIRUGARREN ATALA: JOKABIDEAK ZUZENTZEKO BIDE ALTERNATIBOAK.

LAUGARREN ATALA: NEURRI ZUZENTZAILEAK APLIKATZEKO PROZEDURAK .

XEDAPEN GEHIGARRIAK
XEDAPEN IRAGANKORRAK
XEDAPEN INDARGABETZAILEAK
AZKEN XEDAPENAK



Elkarbizitzako plangintza eta antolakuntza GUEREÑU Ikastetxean

AURREKO ATALA: XEDAPEN ORROKORRAK

Artikuluak: 1 – 2 – 3 – 4 eta 5

LEHEN ATALA: IKASLEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

1ªAtala: Ikasleen eskubideak eta betebeharrak

ARTIKULUAK: 6 – 7 – 8 – 9 – 10 – 11 – 12 – 13 – 14 – 15 – 16 – 17 – 19 - 20

2ªAtala: Ikasleen eskubideak

Artikuluak: 21 - 22- 23 – 24 – 24 – 26 – 27

BIGARREN KAPITULUA: JOKABIDE DESEGOKIAK, BIZIKIDETZAREN AURKAKOAK ETA HURA LARRIKI KALTEATZEN DUTENAK, ETA JOKABIDE HORIEN ZUZENKETA.

1ªAtala: Xedapen orokorrak

28. Artikulua- zuzendu beharreko jokabideak

29. Artikulua- ikasleen adinari egokitzapena

2ªAtala: jokabide mota desberdinak

30. Artikulua- jokabide desegokiak

JOKABIDE DESEGOKIAK

- a) Justifikatu gabeko puntualtasun-hutsegiteak
- b) Justifikatu gabeko hutsegiteak
- c) Ikastetxeko instalazioei, Ikastetxeko materialari edo hezkuntza-komunitateko gainerako kideen gauzei narriadurak eragiteak, zabarkeriagatik gertatzen denean. Adibidez: liburuak, leihoak, baloiak...(material zenbateko balioa kontuan izanda)
- d) Hezkuntza komunitateko kideen aurkako adeitasunik ezeko jarrera, keinu edo hitzak.
 - Indiziplina:
 - Ez joatea deitzen diotenean.
 - Ihes egitea deitzen diotenean.
 - Ez egitea eskatzen diotena.
 - Aginduei jaramon ez egitea.
 - Hitz egiten diozunean belarriak estaltzea.
 - Hitz egiten diozunean bizkarra eman.
 -
 - Adierazpen hauek erabiliz irainak edo mesprezuak:
 - Irainak
 - Hezkuntza komunitateko kideen aurkako adeitasunik ezeko jarrera, keinu edo hitzak.
 - Modu desegokian erantzutea: iseka tonuan, probokazio edo mesprezua.
 -



Elkarbizitzako plangintza eta antolakuntza GUEREÑU Ikastetxean

- e) Jokabide erasokorrak Hezkuntza Komunitateko edozein kideengan(bultzakadak, txaloak, zangoztraba...ze motako lesioak eraginez gero, hobe arina edo hobe astuna pasatuko lirerateke izatera).
- f) Edozein ekintza bidegabea, bai bakarkakoa bai taldekoa, ikastetxearen jardueren garapen normala arinki aldatzen duena.
 - Gauzak lurrera bota.
 - Arrazoi gabe aukeratik altxatzea.
 - Ikaskideak molestatu ekintzak burutzen ari direnean.
 - Klasea etetea.
 - Gelatik paseatzea arrazoi gabe.
 - ...
- g) Ikastetxeko Gobernu Organoak bere eskumenen eremuan debekatutako ekipoak, materialak, jantziak edo aparatuak ikastetxera eramatea (mobilak...).
- h) Ikastetxeko ekipamendua (elektronikoa, mekanikoa, telefonikoa, informatikoa edo edozein motatakoa) baimenik gabe edo baimendutakoak ez diren helburuetarako erabiltzea.
- i) Ikastetxeko langileei gezurra esatea edo informazio faltsua ematea, betiere horrek hezkuntza-komunitateko inori kalterik eragiten ez badio.
- j) Kalifikaziorako baliatuko diren azterketa, proba edo ariketetan kopiatzea edo besteei norberarena kopiatzen erraztea, edo azterketa, proba edo ariketa horietan baimenduta ez dauden material edo aparatuak erabiltzea.
- k) Hartarako baimenik ez dutenei ikastetxean sartzeko aukera erraztea edo haiekin sartzea, ikastetxeko Bizikidetzaren arauen edo Gobernu Organoen jarraibideen aurka.
- l) Ikaskideen gauzak nahita erabiltzea, haien borondatearen aurka.

BIZIKIDETZAREN AURKAKO JOKABIDEAK (31. artikulua)

BIZIKIDETZAREN AURKAKO JOKABIDEAK IKASTETXEAN

- a) Indiziplina egintzak, irainak edo bidegabekeri larriak hezkuntza komunitateko kideen aurka.
 - Indiziplina:
 - Huts egin deitzen zaionean eta buruz-buru jarri.
 - Gelatik korrika egin eta irakaslearen aldetik egindako deiei kasurik ez egin.
 - Pasabideetatik eta patiotik korrika egin irakaslearen aldetik egindako deiei



Elkarbizitzako plangintza eta antolakuntza GUEREÑU Ikastetxean

- kasurik egin gabe.
- Bultzatu edota hautsi hileren martxa egokia.
 - Ikastetxe kanpoko ekintzetan (antzerkia, kontzertuak, ...)molestatu eta jarrera egokia ez edukitzea.
 - Behin baino gehiagotan, ez onartu norberaren ardurak gezurrak aitzakiatzat erabiliz.
 - Behin eta berriz ez errespetatu ikastetxeako arauak (asteazkenetan baloia patiora eraman...).
 - ...
- Behin eta berriro irainak edo bidegabekeriak erabiltzea hoben arinen atalean.
- b) Ikaskideen edo hezkuntza-komunitateko gainerako kideen aurkako mehatxuak edo irainak (bai ahoz bai fisikoki).
- c) Ikastetxeako edozein ekintzetan nortasuna ordezte eta agiri akademikoak lapurtu edo aizuntzea.
- Gurasoen zein arduradunen sinadura aizuntzea.
 - Noten buletineta edo gurasoentzako edo legezko ordezkarietzako beste edozein dokumentutan edo jakinarazpenetan aldaketak egitea.
 -
- d) Kalteak eragitea bidegabeko erabileragatik ikastetxeko lokalei, altzariei, materialari edo dokumentuei, edo hezkuntza-komunitateko gainerako kideen gauzei, jokabide hori ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragiten dion jokabidea ez bada.
- e) Ikastetxearen ekintzak garapen normala larriki kaltetzen dituzten bidegabe egintzak, bakarkakoak edo taldekoak.
- Mahai azpian sartzea.
 - Lurrera botatzea.
 - Mahaian, aulkian zein lurrean, eskuarekin edota oinekin kolpeak ematea.
 - Mahaia, aulkia... edozein objektuarekin kolpatzea.
 - Mahaiak, aulkiak edo beste objektuak botatzea.
 - ...
- f) Ikastetxeko Ordezkaritza Organo Gorenak edo Eskola Kontseiluak hartutako baliozko erabakiak nahita ez betetzea.
- g) Pertsonak ohorerako, intimitaterako eta irudi propiorako duten eskubidea ez errespetatzea, haiek, edo, hala badagokio, haien gurasoek edo legezko ordezkariak, baimena eman gabe grabazio-baliabideak erabiliz.
- h) Beste edonori bere eskubidea baliatzeko aukera galaraztea, indarkeria erabili gabe, eta beste edonor bere borondatearen aurka zerbait egitera behartzea; betiere, indarkeriarik erabili gabe.



Elkarbizitzako plangintza eta antolakuntza GUEREÑU Ikastetxean

- i) Ordena nahasten duten portaerak eskolako jangelan, bai bakarka bai taldean, eta, betiere, bizikidetzan kalte larria eragiten ez badute.
- j) Hezkuntza-komunitateko edozein kiderengan lesio fisikoak eragin ditzaketen objektuak zuhurtziaz gabe erabiltzea.
- k) Ikastetxeko langileei gezurra esatea, informazio faltsua ematea edo norberaren nortasuna ezkatzea, horren ondorioz hezkuntza-komunitateko beste kide batzuei kalte egiten bazaie.
- l) Diskriminazioa dakarren edozein egintza edo jokabide, diskriminazio horren arrazoia edozein izanik ere: jaiotza, adina, arraza, sexua, egoera zibila, orientazio sexuala, gaitasun fisikoa edo psikikoa, osasun-egoera, kultura, erlijioa, sinesmena, ideologia, edo beste edozein egoera edo zirkunstantzia pertsonal, ekonomiko edo sozial. Betiere bizikidetzan kalte larria eragiten duen jokabide hartzen ez bada.
- m) Aurreko artikuluan adierazitako jokabide desegokiren bat gehienez ere hiru aldiz egitea hiruhileko akademiko berean; betiere, aurreko biak zuzendu badira.

BIZIKIDETZARI KALTE LARRIA ERAGITEN DIOTEN JOKABIDEAK (32. artikulua)

IKASTETXEAN BIZIKIDETZARI KALTE LARRIA ERAGITEN DIOTEN JOKABIDEAK

- a) Hezkuntza-komunitateko kideen aurkako adierazpen oso laidoak edo iraingarriak, laido edo irain horiek edozein modutan adierazita ere: ahoz, idazki bidez, edo baliabide informatikoak edo ikus-entzunezkoak erabiliz.
- b) Hezkuntza-komunitateko edozein kideren aurkako eraso fisiko edo psikologikoa.
- c) Ikastetxeko hezkuntza-komunitateko kideak beren osasunerako eta osotasun pertsonalerako oso kaltegarriak diren jokaerak egitera bultzatzea.
 - Hesia saltatzea
 - Ikaskide bat jotzeko bultzatzea.
 - Ikastetxetik kanpo ezarritako arauetara jaramonik ez egitea (kaletik korrika atera...)
 - Tabakoa, alkohola eta drogak kontsumitzera bultzatzea.
- d) Nahita kalteak eragitea ikastetxearen instalazioetan edo ondasunetan, ikastetxeko langileei, beste ikasle batzuei edo beste pertsona batzuei.
- e) Diskriminazioa dakarten edo adierazten duten irainak erabiltzea, diskriminazio horren arrazoia edozein izanik ere: jaiotza, adina, arraza, sexua, egoera zibila, orientazio sexuala, gaitasun fisikoa edo psikikoa, osasun-egoera, hezkuntza, kultura, erlijioa,



Elkarbizitzako plangintza eta antolakuntza GUEREÑU Ikastetxean

sinesmena, ideologia, edo beste edozein egoera edo zirkunstantzia pertsonal, ekonomiko edo sozial.

- f) Jazarpen sexista, otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerakok, ezarritako definizioa aintzat hartuta: nahi ez duen pertsona batekin eta pertsona horren sexua dela-eta, hitzez, hitzik gabe edo fisikoki edozein jokabide izatea, eta horren helburua edo ondorioa pertsona horren duintasunari erasotzea edo kikilduta, etsai, makurrarazita, irainduta edo laidoztatua sentiarazteko giroa sortzea bada.
- g) Bizikidetzaren aurkako jokabide guztiak, taldean egiten direnean edo haien berri nahita zabaltzen denean, ahoz, idazki bidez, ikus-entzunezko baliabideen edo baliabide informatikoen bidez; baita berdinen arteko tratu txarreko egoeretan parte hartzen dutenean ere.
- h) Liskar edo jokabide erasokorrak eragitea edo jokabide horietan parte hartzea, betiere lesioak eragiteko arrisku larria sortzen bada.
- i) Ordena nahasten duten jokabideak autobusean edo eskolako jangelan; betiere, hezkuntza-komunitateko edozein kiderentzako egoera arriskutsuak sortzen badituzte.
- j) Grabazio-baliabideak erabiliz, besteek ohorerako, intimitaterako eta irudi propiorako duten eskubidea ez errespetatzea, aldez aurretik haiek, edo, hala badagokio, haien gurasoek edo legezko ordezkariak, horrelakorik nahi ez dutela esanbidez adierazi badute.
- k) Euskarri idatzian edo informatikoan dagoen eskolako dokumenturen bat edo erregistroren bat kaltetzea, trukitzea edo aldatzea, baita dokumentu akademikoak ezkutitzea edo baimenik gabe ateratzea ere.
- l) Delitua edo zigor-arloko hutsegitea den edozein egintza, nahita egin bada.
- m) Ikasturte berean gehienez ere hiru aldiz egitea aurreko artikuluan adierazitako bizikidetzaren aurkako edozein jokabide.
- n) Norberaren betebeharrak ez betetzea dakarren edozein jokabide, betiere jokabide hori hezkuntza-komunitateko gainerako kideen edo beste edonoren eskubideen aurkako bada zuzenean; hain zuzen ere, honako eskubide hauen aurkako bada: osasunerako, osotasun fisikorako, adierazpen-askatasunerako, parte hartzeko, biltzeko, diskriminaziorik ez jasateko, ohorerako, intimitaterako eta norberaren irudirako eskubideena.
- o) Jokabide desagokien lorpena hiru aldiz ikasturte batean zehar.



Elkarbizitzako plangintza eta antolakuntza GUEREÑU Ikastetxean

3. atala: jokabide desegokiak, bizikidetzaren aurkakoak eta bizikidetzari kalte larriak eragiten dizkietenak.

JOKABIDE DESEGOKIEN ZUZENKETA (34 artikulua)

- a) Jokabide desegokiak **hausnarketa** eta bere ondorioak.
- Hausnarketa honetan ikasleari bere jarrera ulertarazteko urrats batzuk jarraituko dira: inplikatuak sentimenduak adieraztea, ahots doinua egoki erabiltzea...

(1 ERANSKINA)

- b) Kaltetuak izan diren pertsonen aurrean jokabidea desegokia izan dela onartzea.
- c) Jokabide-eredu egokiak **ikasteko eta barneratzeko jarduerak** egitea.
- d) Jokabide desegokiaren nolakotasunarekin **zerikusia duen zereginen** bat egitea.
- e) Beharrezkoa izanez gero, **zuzendariaren, ikasketa buruaren** edo une hartan ikastetxeko arduraduna den zuzendaritza taldeko beste edozein lankide baten aurrean aurkeztu.
- f) **Baloretan oinarritutako hezkuntza**, eta eman diren jokabide desegokiak bereziki **tutoretzetan landu**.
- g) Ikasleak egindako **jokabide desegoki guztiak idatziz jasoko dira**.

IKASTETXEAN BIZIKIDETZAREN AURKAKO JOKABIDEEN ZUZENKETA (35. artikulua)

1. Elkarbizitzako aurkako jokabideak zuzentzeko, zuzendariak aurreko artikuluan ezarritako neurriaz gain, honako hauek ere erabili ditzake:

- a) Bizikidetzaren aurkako jokabideari eta haren ondorioei buruzko hausnarketa eta jokabidea bideratzeko orientazioak.

(1 ERANSKINA)

- b) **Kargu-hartze** idatzia, non tutorearen zein ikasgaiaren irakasleen informea zehaztuko da. Kargu-hartze hau, gurasoek edo lege ordezkariak sinatu beharko dute.
- c) Ikaslea taldez edo gelaz aldatzea, aldi baterako edo behin betiko. Aukera hau tutoreak, ikasketa buruak eta aholkulariak erabakiko dute. Aldaketa erabakitzen bada, gurasoei abisatu behar zaie.



Elkarbizitzako plangintza eta antolakuntza GUEREÑU Ikastetxean

- d) **Lan hezigarriak** edo eragindako kalte materialak konpontzeko lagungarriak diren zereginak egitea, edo hala badagokio, ikastetxeko jarduerak hobetzeko eta garatzeko lagungarriak direnak; betiere, **hiru hilabetez gehienez ere**. Lan edo zeregin horiek lotura izan behar dute ikasleak bizikidetzaren aurka izandako jokabidearekin.
- e) Gai bateko edo batzuetako eskoletara joateko eskubidea eta jarduera osagarriak eta eskolaz kanpokoak egiteko nahiz zerbitzuak **jasotzeko eskubidea etetea**, harik eta ikaslearen gurasoekin edo lege-ordezkariekin **elkarrizketa bat egiten den arte**. Eskubide-etendura horrek **ezingo du hiru egun baino gehiago iraun**.
- f) **Eskolaz kanpoko jardueretan parte hartzeko eskubidea etetea, gehienez ere zuzendutako jokabidea egin den hiruhilekoa amaitu arte**; edo, jokabide hori hiruhileko akademikoaren azken hilabetean gertatu bada, hurrengo hiruhilekoa amaitu arte.
- g) **Eskolaz kanpo egin behar diren jarduera osagarrietan parte hartzeko eskubidea etetea, gehienez ere zuzendutako jokabidea egin den hiruhilekoa amaitu arte**; edo, jokabide hori hiruhileko akademikoaren azken hilabetean gertatu bada, hurrengo hiruhilekoa amaitu arte. Nolanahi ere, eskola-orduetan, ikasleari arreta eman beharko zaio ikastetxean.
- h) **Jangela-zerbitzua edo garraio-zerbitzua erabiltzeko eskubidea etetea, gehienez ere zuzendu beharreko jokabidea egin den hiruhilekoa amaitu arte**, edo, jokabide hori hiruhileko akademikoaren azken hilabetean gertatu bada, hurrengo hiruhilekoa amaitu arte; betiere, bizikidetzaren aurkako jokabidea zerbitzu horiek erabiltzen ari zenean egin badu ikasleak.
2. 1.g), 1.h) eta 1.i) idatzi-zatietan adierazitako neurriak erabili ahal izan dira, soilik 1.a) eta 1.f) idatzi-zatietan adierazitako neurrietatik bi gutxienez aplikatu ondoren bizikidetzan kalte larriak eragiten dituzten jokabideak zuzentzea lortu ez bada.

BIZIKIDETZARI KALTE LARRIA ERAGITEN DIOTEN JOKABIDEEN ZUZENKETA (36. artikulua)

1. Ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideak zuzentzeko, aurreko artikuluan bildutako neurri bat edo gehiago aplikatuko ditu zuzendariak, eta, horiez gain, honako hauetako edozein:
- a) **Lan hezigarriak eskola-ordutegitik kanpo egitea**, edo ikastetxeko jarduerak hobetzeko eta garatzeko lagungarriak direnak, edo, hala badagokio, eragindako kalte materialak konpontzeko lanak, betiere sei hilabetez gehienez ere.



Elkarbizitzako plangintza eta antolakuntza GUEREÑU Ikastetxean

- b) **Arlo edo irakasgai bateko edo gehiagoko eskoletara joateko eskubidea etetea hiru eskola-egunetik hogeira bitartean.** Horren ondorioz, ikasleak ez du etengabeko ebaluazioa galduko, betiere lan jakin batzuk edo etxerako zeregin jakin batzuk egiten baditu, hartarako izendatutako irakasleek kontrolatuta.
 - c) **Ikastetxera joateko eskubidea etetea hiru eskola-egunetik hogeira bitartean.** Horren ondorioz, ikasleak ez du etengabeko ebaluazioa galduko; betiere, lan jakin batzuk edo etxerako zeregin jakin batzuk egiten baditu, hartarako izendatutako irakasleek kontrolatuta.
 - d) **Eskolaz kanpoko jardueretan edo ikastetxetik kanpoko jarduera osagarrietan parte hartzeko eskubidea edo jangela-zerbitzua** erabiltzeko eskubidea etetea. Neurri hori **ikasturtea amaitu arte** aplikatu ahal izango da.
2. Artikulu honetako 1.b), 1.c) eta 1.d) idatzi-zatietan bildutako neurriak erabili ahal izango dira, baldin eta 1.a) idatzi-zatian adierazitako neurrietako baten bat aplikatuta bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideak zuzentzerik lortu ez bada.

37.artikulua – Ikastetxez aldatzeko proposamena

38.artikulua - Behin eta berriro egindako hutsegiteengatik ebaluatu ezina.

39.artikulua - Oinarrizko gizarteren eta hiritar konpetenziaren ebaluazioan ondorioa.

40.artikulua- Okerrak gertatzekotan, ardura.

41.artikulua- Neurri zuzentzaileak proportzionaltasunez aplikatzen direla bermatzeko irizpideak

III. KAPITULUA: HAUTABIDE BIDEAK JOKABIDEAK ZUZENTZEKO

42 – 43 – 44 – 45 – 46 - 47 – 48 ARTIKULUAK

IV. KAPITULUA: NEURRI ZUZENTZAILEAK EZARRITZEKO PROZEDURAK

1. SAILA: Xedapen orokorrak

49 – 50 – 51 – 52 – 53 – 54 – 55 – 56: Artikuluak

2. SAILA: Jokabide ezegokien zuzenketa

57. artikulua

3. SAILA: Elkarbizitzaren aurkako jarrera zuzentzeko ohiko prozedura eta elkarbizitza larriki kaltetzen dituzten jarrerak.

58 – 59 – 60 – 61 – 62 – 63 – 64 – 65 – 66 – 67: artikuluak

4. SAILA: Ezohiko prozedura.

68 – 69 – 70 – 71 – 72 – 73 – 74 – 75 – 76 – 77 – 78 – 80: artikuluak

XEDAPEN GEHIGARRIAK

XEDAPEN IRAGANKORRA

XEDAPEN INDARGABETUA

AZKEN XEDAPENA



7. Funtzionamendurako baliabideak:

7.1. Jokabideen erregistroa

Ikastetxeko irakasleek ikasleek egindako jokabide desegokiak, aurkakoak edota elkarbizitzako larriki kaltegarriak direnak arakatuko dituzte.

Ikasturtean zehar jasotako ikasleriaren jokabideak ebaluaketako txostenetan jasoko dira.

7.2. Heziketa neurriak

Ikaslearen eraginak behin eta berriro errepikatzen direnean, gurasoei jakinaraziko zaie, hoberenak diren heziketa neurriak hartzeko haiei irtenbidea emateko.

7.3. Ezohiko prozedura

Dokumentu honen 2. eranskinan, elkarbizitzako aurkakoak diren jokabideen zuzenketarako jarraitu behar diren urratsak daude, baita elkarbizitza larriki kaltetzen dituztenak ere (abendua 2ko dekretua, erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzkoak; IV. Kapituluak, 4. saila).

8. GURASO ETA ARDURADUNENTZAT INFORMAZIOA

Kurtso hasieran, ikastetxearen funtzionamenduari aipatutako beste informazioei batera, elkarbizitzako planari erreferentzia egiten dion txostena emango zaie, bere existentziaren eta funtzioen partaide eginez.

1. ERANSKINA

Hauek dira jarraitu behar diren pausoak zuzendu beharreko jokaera baten aurrean aurkitzen garenean.

Egoera sortu aurretik:

- Behar diren trebetasunak edo konpetentziak lantzeko proposamena egin (beharrezkoa denean).

Egoera sortzen denean:

1. Portaera gelditu
2. Elkarrekin kausak aztertu (Zergatik sortu da?, zer egin duzu? Zer pentsatzen duzu?, nola sentitu zara?)
3. Lagundu ondorioak aztertzen eta kalteak zehazten, bai materialak bai pertsonalak, besteentzat eta bere buruarentzat (Nor atara da galtzen?, zer apurtu da?)
4. Ikasleari lagundu zein den bete ez duen araua identifikatzen.
5. Lagundu irtenbideak proposatzen (konpondu, adiskidetu)




Elkarbizitzako plangintza eta antolakuntza GUEREÑU Ikastetxean

Arazoa mantentzen bada:

1. Familia informatu eta beraien laguntza eskatu (beharrezkoa denean)
2. Inplikaturik dauden parte guztien konpromisoa zehaztu, erreal eta egingarria dela ziurtatuz. Oso inportantea da konpromisoak gertatutakoarekin lotura izatea.
3. Ikasleari hurrengo batean nola jokatu duen azaltzeko eskatu.
4. Bukatzeko, eta hala badagokio, konpromisoaren ebaluaziorako data zehaztu.





**Eskola
lagun.
Vivir y
aprender
junt@s.**

**"Planificación y
organización de la convivencia
en "GUEREÑU" Ikastetxea"**



Elkarbizitzako plangintza eta antolakuntza

GUEREÑU Ikastetxean

ACCIONES Y TEMPORALIZACIÓN

Elaboración del documento base: “Planificación y organización de la convivencia en GUEREÑU IKASTETXEA”.	Tercer trimestre del curso 2010-2011
Presentar para su análisis el documento base al Claustro, Asociación de Padres y miembros del Consejo escolar .	Octubre-Noviembre 2011
Presentar el documento base al alumnado.	2011ko sesiones de tutoría de noviembre
Crear el observatorio de convivencia.	Octubre del 2011
Incluir el Proyecto de convivencia en el Plan Anual 2011-2012	Octubre del 2011
Recoger las aportaciones y reflexiones de los diferentes sectores de la Comunidad Escolar, reelaborar el documento y presentarlo y aprobarlo en el Consejo escolar.	Primer trimestre del curso 2011-2012



AURKIBIDEA

8. Introducción
9. Objetivos generales
10. Plan anual de Convivencia
11. Observatorio de la Convivencia
12. Reglamento de Convivencia del Colegio.
 - 12.1. Normas generales de convivencia.
 - 12.2. Entradas y salidas
 - 12.3. Puntualidad y faltas de asistencia.
 - 12.4. Desplazamiento del alumnado:
 - 12.4.1. Dentro del Colegio
 - 12.4.2. Fuera del Colegio.
 - 12.5. Reglamento del comedor.
 - 12.6. Reglamento de las actividades extraescolares.
 - 12.7. Instalaciones. Espacios. Materiales.
 - 12.8. Eskola lagun.
 - 5.9 Normas para las aulas.
13. Decreto del 2 de diciembre 201/2008 sobre derechos y deberes del alumnado de centros no universitarios de la Comunidad Autónoma del País Vasco.
 - 13.1. Capítulos sobre deberes y derechos del alumnado. .
 - 13.2. Recursos para el funcionamiento:
 - 13.2.1. Padrón de conductas
 - 13.2.2. Medidas educativas.
 - 13.3. Procedimiento extraordinario.
14. Información para padres-madres o responsables del alumnado.
 - 6.
 - 7.
 - 8.



Elkarbizitzako plangintza eta antolakuntza GUEREÑU Ikastetxean

9. SARRERA

“GUEREÑU” es un centro educativo donde educar y aprender, en el que conviven diferentes grupos de personas: alumnado, profesorado, personal no docente, padres-madres, monitores de actividades extraescolares, monitores de comedor, ...-

Así pues, necesitamos cuidar las relaciones entre quienes componemos la Comunidad Escolar, para que sean saludables, reconfortantes y amables. Para ello disponemos del Plan de Convivencia Anual, el observatorio de convivencia y otra serie de recursos dirigidos a la consecución de los objetivos que se proponen en este plan.



En este documento se detallan los objetivos, su organización y evaluación, y la función de los diferentes miembros de la comunidad escolar. Hay que destacar la importancia que tiene la implicación de los diferentes sectores de la comunidad escolar en este proyecto, cuyo objetivo final es lograr una convivencia positiva y saludable, destacando la importancia del trabajo del Observatorio de Convivencia.

10. OBJETIVOS GENERALES

- ◆ Mejorar la convivencia en el centro..
- ◆ Crear un clima de armonía y de respeto entre todos l@s miembros de la comunidad escolar.
- ◆ Asumir la idea –profesorado, personal no docente, alumnado y familias- de que somos miembros de una comunidad escolar, asumiendo las responsabilidades que por ello nos corresponden.
- ◆ Impulsar la igualdad entre hombres y mujeres.
- ◆ Impulsar la resolución pacífica de conflictos.
- ◆ Dar una rápida respuesta a situaciones de acoso y amenaza entre iguales.
- ◆ Prevenir los conflictos y educar en la mejora de las relaciones.
- ◆ Impulsar el respeto hacia el medio ambiente.

11. PLAN ANUAL DE CONVIVENCIA

Todos los cursos se planificarán y realizarán acciones encaminadas a mejorar la convivencia entre los miembros de la comunidad escolar, y se incluirán en el Plan Anual de Centro.

12. OBSERVATORIO DE CONVIVENCIA



- ◆ **Composición del Observatorio de Convivencia.**
